



XAPO

2025eko maiatza - 24. zenbakia

Goizuetako
aldizkaria



Goizuetan badun aldizkari bat, deitzen zaion XAPO





zenbaki honetan



• **Argitaratzailea:**
Goizuetako kultur taldea
eta Goizuetako Udalaren
Euskara Zerbitzua

• **Irudiak:**
Iban Eskudero, Goizuetako
eskola, Esteban Arotzena,
Goizuetako Irakurle Taldea,
Oihana Lujanbio, Itsaso
Lujanbio eta beste zenbait
herritarrek utziak.

• **Diseinua:**
Allende Arnaiz

• **Maketazioa:**
astidiseinua.com

LG NA 742-2016



aurkibidea

- 3 Aurkezpena
- 4-5 Zer dakigu Trabuko eta Berdabioren istorioen inguruan?
- 6 Euskaraldia Goizuetan
- 7-11 Noka-saioak noka berreskuratzen hasteko
- 12-15 Goizueta iruditan
- 16-18 Ba al dago frontoirik gabeko herririk?
- 19-23 Xalto eskolako ikasleek aurtun landutako zenbait gai
- 24-25 Bertso txokoa
- 26 Goizuetako irakurle taldeak
- 27 Atzera begira: 2004. urtea
- 28 Zure txanda





Goizuetan badun aldizkari bat, deitzen zaion Xapo

Beste ale bat ondu dugu aurten ere, goizuetarren laguntzarekin eta elkarlanean. 24. alea da honakoa eta gai sorta ekarri du orain ere.

Arainburu Mendi Taldeak proposatutako *Trabukoren bidea* proposamenak izandako arrakasta ikusita gaiari heldu diogu, herritarrei galdetuz ea zenbat dakiten bi protagonista hauen inguruko gertakizunaz. Prest al zaude te botatako galderak erantzuteko eta, ahal bada, asmatzeko? Ea bada...

Eta hiketan zer moduz moldatzen haiz, irakurle? garai batean gure herrietan biziago zegoen hitanoa galtzen ari dela jabetuta, Euskal Herriko zenbait herritan hiketan berreskuratzeko lanketak egiten hasi dira, baita jarduerak antolatu ere. Goizuetan ere galeraz ohartuta gaiari heltzea erabaki zuten orain bi urte, eta “*amona Joxepi eta Roxa*”ren bidez herritarrek sentsibilizatu

eta eragiteko asmoz bideoa grabatu zuten (2023ko Xapon duzue horri buruzko artikulua). Erabileran eragiteko *no-ka saioak* eskaini ditu Oihana Lujanbio herritarrak, parte hartu nahi izan duten goizuetarrentzat. 18-20 emakumez osatutako taldea sortu da, eta bertan hitanoa dakitenek ikasi nahi dutenekin partekatu dituzte aditzak eta erabiltzeko erak. Ikastaroaren nondik norakoak aurtengo aldizkari honetan dituzue.

Bestetik, Goizuetako Lubineko pilota plazaren inaugurazioa aitzakia hartuta herriko frontoiek betetzen duten funtzioaren inguruko hausnarketa ere ekarri du Xapok, garai bateko argazki dotorez jantzia heldu da erreportajea.

Euskaraldiaren urtea izan denez, le-rrero batzuk idatzi ditugu Goizuetak Euskaraldiarekin bat egin duela azaltzeko. Bereziki hiketan aritzea bultzatu nahi izan da, aurten Euskaraldiak har-

tarako aukera eman duelako. Ariketa sozialaren helburuak hikaldira ekarri “zuketatik hiketara salto egitera animatu nahi ditu herritarrak” hizkuntza-ohiturak aldatzeko eta euskararen erabileran eragiteko helburua delako Euskaraldiarena.

Ohiko atalak ere osatu ditugu, bate-tik *Atzera Begira*, bestetik *Bertso txo-koa*, baita *Zure Txanda* ere, bi goizue-tar euskal dantzei buruz aurrez aurre jarrita. Goizuetako irudi zoragarriak ere eskaini dizkigute aldizkariaren orrialdeak kolorez janzteko, gozatu txoko ederrez! Eta bukatu aurretik “Xalto” eskolako ikasleak eskertu nahi ditugu urtero bezala Xaporako idatzi-tako lanak eskaintzeagatik.

Parte hartzaile guztiak eskertzeko baliatuko dugu azkeneko lerroa, zuek gabe ez bailitzake XAPO osatuko. Es-kerrik asko!



4

denborapasak



Zer dakigu Trabuko eta Berdabioren istorioen inguruan?

Arainburu Mendi Taldeko Miel Joxe Lekuona eta Joxe Jabier Etxeberria kideek "Trabukoren bidea" osatu dutela eta, berriro ere argitara atera dira Trabuko eta Berdabioren gertaerak. Baina, zer dakigu istorio haien inguruan? Ikusi dezagun ea zenbaterainokoa den gure ezagutza.

Nork egin zituen ezagun Trabukoren ibilerak abesti batean?

- a) Mikel Laboa
- b) Benito Lertxundi
- c) Xabier Lete eta Lourdes Iriondo

Noiz argitaratu zen abestia?

- a) 1989
- b) 1966
- c) 1986

Nola da abestiaren benetako izena?

- a) Goizuetan bada gizon bat
- b) Goizuetan bada
- c) Goizuetan

Osatu abestiaren (berezko testua) 4 bertsoen errimak:

I.-

Goizuetan bada gizon bat
deritzen zaio _____
Itzak ederrak biotza faltso
sekula etzaio _____,
egin dituan dilijentziak
berari zaizko _____.

II.-

Ongi ongi oroitu adi
zer egin uen _____
Difuntu orrek izatu balu
yarraikilerik _____,
orain baino len egongo intzan
ni orain nagoen _____.

III.-

Nere andreak ekarri zuen
Aranaztikan _____.
Obe zukean ikusi ezpalu
Berdabioko _____;
orain etzuen idukiko
dadukan _____.

IV.-

Nere buruaz eznaiz oroitzen,
zeren ez naizen _____.
Azitzekoak or uzten ditut
bi seme ta iru _____.
Jaun zerukoak adi dezala
oien amaren _____.

Nork jaso zuen Trabukoren istorioa liburu batean?

- a) Patziku Perurenak
- b) Iñaki Perurenak
- c) Istorio hau abestian bakarrik dago jasoa



Argazkiko bi leku hauetan kokatzen da istorioa. Zein leku dira?



Istorioren arabera, Lesakako elizako kandelabroak lapurtzeagatik sartu zituzten 1747. urtean Berdabio eta bere lagunak Goizuetako kartzelan.

- a) Egia
- b) Gezurra

Zergatik ondoren Goizuetako kartzelatik Iruñekora eraman zituzten?

- a) Diru faltua egiteagatik
- b) Trabukok salatu zituelako
- c) Aurreko biak egiak dira

Zer zuen egina Trabukok ordurako?

- a) Lesakar bat hil zuen eta isilpean gorde
- b) Elaman kontrabandoan ibiltzen zen
- c) Oraindik argitzeke dago

Zer ibilbide egin zuten Goizuetatik Iruñera joateko?

- a) Goizueta-Ezkurra-Latasa-Irurtzun-Iruñea
- b) Goizueta-Leitza-Ihaben-Ansoain-Iruñea
- c) Goizueta-Leitza-Latasa-Ansoain-Iruñea

Noiz egin zen landarte programaren eskutik "Goizuetan bada" antzerkiaren berreskurapena?

- a) 2015
- b) 2017
- c) 2018

Nork zuzendu zuen antzerkia?

- a) Aizpea Goenaga
- b) Zuhaitz Gurrutxaga
- c) Olatz Beobide

Lehenengo aldia zen istorioaren antzerkia egiten zela.

- a) Egia
- b) Gezurra

Osatu gertakizunaren inguruko testua hitz egokiak bilatuz:

Abestiak kontatzen dituen gertakizunak Goizueta, Lesaka eta _____ herrietan kokatuak daude. Goizueta-ko Artikutzatik gertu, _____ auzoan, _____ bordan bizi zen gizon baten ahotik mintzo da narratzailea. Bertsoak gizon hark berak egin zituen, Iruñeko kartzelan zegoela.

Kopletan _____ izeneko gizon bat mespretxatzen da, gizon gaiztoa eta gezurtia dela salatuz (hitzak ederrak, bihotza faltso).

_____ bere bordaren inguruko meatze batetik ateratako metalarekin (Goizueta meatzaritza eta oletatik bizi izan da mendeetan) _____ egiten zuen, gero, kontrabandoz, mugaz beste aldera igarotzeko. Iturri bartzuen arabera, meatzeko metalak ezezik, _____ urre eta bestelakoak ere baliatzen zituen dirua egiteko, eta hain zuzen, horregatik atxilotu zituzten hasieran Berdabio eta haren hiru lagunak.

_____ bazuen _____ negozioen berri; _____, aldi berean, _____ egindako delitu bartzuen jakitun zen, tartean, gizon bat _____ zuela ("ongi oroitu hadi, zer egin huen Elaman"). Bertsook kartzelan kantatu zituen, bere salatarriari mendeku hartzeko.

Berdabio, Trabukok, hil
lapurturiko, Trabukok, Berdabioaren,
Berdabio, Trabukok, Berdabio, diru faltua,
a), b), b), c), b), Arantzako, Elama,
Elamako burdina, Berdabio baserria, a), c),
pesalondrea, bakarra, negarra, a),
Elaman, Lesakan, dotia, atea,
a), b), c), Trabuko, paltako, damuko,

ERANTZUNAK:



EUSKARALDIA GOIZUETAN

Elkar mugituz egingen diñau!

Euskaraldiaren laugarren edizioa izan berri dugu, XAPO aldizkaria argitaratzen ari zen bitartean bukatu da, hain justu ere. Euskararen erabilera aktibatze mugimenduan eragiten duen dinamika da Euskaraldia, eta 11 eguneko ariketa soziala proposatzen du, hizkuntza ohituretan aldaketa eragiteko helburuarekin. Izan ere, helburu nagusia herritarren hizkuntza ohituretan euskararen erabilera handitzea da.

Goizuetak ere parte hartu du, beste behin ere, herriak zein herritarrek izena emanez eta egitasmoaren helburuarekin bat eginez.

Guztira 180 herritarrek eman dute izena. Horietatik 169 Ahobizi eta 11 Belarriprest. Gainera, guztietatik 128k Hikaldian parte hartu dute, H pegatinarekin.

Nolanahi ere, Goizuetako aurtengo lanketak izan du beste asmo zehatz bat ere: HIKALDIAN parte hartzea.

Hitanoa tresna paregabekoa da kalean eta lagunartean erabiltzeko, hizkuntzari freskotasuna ematen dion hizkera informala delako, eta euskarak berezkoa duen hizkera delako, gainera. Gainbehera joan da azken hamarkadetan, ordea, eta herrian ere ohartuak zeuden hitanoa galtzen ari dela. Horrela, Goizuetan taldetxo bat bildu eta **hitanoa berreskuratze** asmoz hasi zen lanean. “Amona Joxepi eta Roxaren” bideoekin abiatu zuten hitanoaren zabaltze eta berreskuratze bidea. Ondoren “Goizuetako Hika txuleta” prestatu zuten, hiketako aditzak bertako eran jarrita, he-



Kutsidazu bidea, Ixabel antzerki ezaguneraren moldaketa eskaini zuten ganbaran Euskaraldiari hasiera emateko.

rritarren eskura jartzeko. Orain, Euskaraldiaren harira, Hika txuleta eskurri hori inprimatu eta etxez-etxe banatuko dituzte, ahalik eta goizuetar gehienek herriko hiketako aditzak ikasteko eta erabiltzeko. Herriko denda, taberna eta zerbitzuetarako ere “Hemen ere HIKA. Goizuetako zerbitzuak” pegatinak

sortu dituzte, dagoeneko erakuslelhoetan ikusgai daudenak.

Eta horrekin guztiarekin batera hitanoa bultzatzeko beste ekimen bat ere burutu da herrian: noka ikastaroa, arrunt arrakastatsua eta parte-hartzailea izan dena. Ikastaroari buruzko xehetasunak aldizkari honetako orrialdeetan irakurriko dituzue.

Herritarren eskura jarritako baliabide hauek denak kontuan hartuta, ez zauek animatu hadi, beraz, eta eman zaneu pausua!





Noka-saioetako parte-hartzaileak
Goizuetako udaletzeko ganbaran.

Noka-saioak noka berreskuratzen hasteko

Hika indartu beharraz ohartu gara euskaldunok eta Goizuetan ere adizki informalak berreskuratzeko saioak antolatu dira 2024ko udazkenean: noka-saioak. Emakumezkoen hizkeran jarri da arreta, noka galtzeaz baitago herri euskaldun honetan. Saio horietan, alde batetik, noka ikasi eta praktikatu da eta hausnarketa egin da nokaren egoeraz eta, bestetik, saioek parte-hartzaileen erabileran izan duten eragina aztertu da. Erabileraren bilakaera aztertzeko, hasieran, 19 emakumeek noka zenbatean ezagutzen eta erabiltzen duten galdetu da, noka ikasteko azalpen eta ariketen bidez praktikatu da gero eta, azkenik, erabileran saioekideek izan duten bilakaera aztertu da. Ondorio nagusia izan da noka-saioek parte-hartzaileen erabileran eragiteko balio izan dutela, eta praktikarekin jarraitzeko eta hikaren ohiko erabiltzaile bihurtzeko, akuiluren bat beharko litzatekeela.

Hikaren galeraz eta, bereziki, emakumei zuzentzeko aldaeraren (nokaren) galeraz ohartuak gara azken urteetan. Izan ere, dagoeneko galdia ez dagoen lekuetan galtzeaz dago, eta oraindik bizirik dela indartzea lortzen ez bada, egoera iraultzea zailagoa izanen dela argi dago. Hori dela eta, azkenaldian Euskal Herriko leku askotan ari dira martxan jartzen hika lantzeko ikastaroak: Oñati, Oiartzun, Usurbil, Hondarribia, Zumaiia, Beasain, Leitza, Dima... Testuinguru horretan, Goizuetan ere egin da ikastaroa, emakumezkoen tratamendua lantzeko proposamena eginez: *noka-saioak* antolatu dira.



erreportajea



Oiartzungo ikastaroak.



Oñatiko ikastaroa.



Goizuetako ikastaroa.



Leitzako ikastaroa.

Oñati, Oiartzun eta Leitzako ikastaroak eredu

Herri askotan egindakoaren abiapuntua izan da Oñatiko esperientzia. Ibilbide oparoa egin dute bertan, eta han egindako lanketa oso aintzakotzat hartu da Euskal Herriko beste txokoe-tan ere. Hitanoa eta, bereziki, noka bi-ziberritzeko sortu zen *Ingo xonau!* proiektua 2019an Oñatin. Noka gal-tzen ari zen han ere; hiltun gazteenek 50 urte inguru zituzten eta, desagertu aurretik, herritar taldetxo bat bildu zen eta berreskuratzen saiatzea eraba-ki zuten. Badiharduguk gidatzen duen proiektua eredugarri da gainerakoen-tzat eta *Ahotsak.eus* webgunean dago

ikusgai. Hitanoaren erabileran eragi-teko hainbat bide jorratu dira: hikala-guna, liburuxkak, ikastaroak, ikaste-txean egindako lana...

Lehen hika ikastaroak 2020-2021 ikasturtean antolatu zituzten, eta ema-kumeei zuzenduak izan ziren; bertan noka eta toka landu zituzten. 20 ordu-ko bi ikastaro eman zituzten 2020-2021 ikasturtean, eta baita 2021-2022 ikasturtean ere. 2024an hika ikastaro mistoa antolatu zen.

Oiartzunen, berriz, Ttur-ttur euska-ra taldeak antolatzen ditu hika ikaste-ko ikastaroak 2021etik hona. Pili Li-zaso da irakaslea eta izena ematen du-ten ikastaro-kideen helburuen arabera antolatzen dituzte saioak. Lau urtetan

zehar 8-12 ikasleko taldeak aritu dira bertan, toka eta noka ikasten. 2024-2025eko ikastaroa aurrekoetatik ez-berdina izan da; aurtengoan noka lan-tzen aritu dira, emakumeak ahaldun-tzeko helburuarekin.

Leitzan ere antolatu zuten hika lan-tzeko ikastaroa. 2023ko urritik aben-dura bitartean izan zen, Fernando Oiartzun eta Ima Zestauk prestatua eta gidatua, Euskara Mankomunitate-ko Euskara Zerbitzuaren laguntzare-kin. Ordu eta erdiko 8 saioz osatu zen ikastaro mistoa. Ondoren, 2024. eta 2025. urteetan zehar saio batzuk egi-ten jarraitu dute, aurreko ikastaroan izen emandakoek eta nahi duenak hi-ketan aritzeko aukera izan dezan.



Goizuetako noka-saioak

Aipatutako ikastaroak aintzat hartuta, noka lantzeko saioak antolatu ditu Goizuetan Oihana Lujanbiok. Noka-saioetan parte hartzeko deialdia egin eta 20 emakumek eman dute izena: 56-75 arteko 8k, 41-55 arteko 6k, 25-40 arteko 6k. Taldea sortzearen helburua beteta, parte-hartzaileen gainean hausnartu da: zergatik ez dira apuntatu gazteagoak? Eta gizonezkoak? Hor hutsune bat egon da, izan ere, mutilek ere noka ikastea behar dugu, haiek emakumeekin hika hitz egin ahal izateko. Beste alde batetik, noka lantzeari begira, hausnartu da emakumez bakarrik osatutako taldeak erraztu egin duela ikasketa, noka-forman erabat zentratu ahal izan garelako.

Zazpi saio antolatu dira 2024ko irailetik abendura. Ondorengo taulan biltzen dira saioetako eduki nagusiak:

SAIOAK	EDUKIAK
1. saioa Irailak 19	AURKEZPENA: saioen helburuak eta metodoa azaldu eta elkar ezagutzea. GALDETEGIA: hiltunen espektatibak eta hasierako ezagutza eta erabilera jaso. PRAKTIKA: orainaldiko aditzak, oinarritzko esaldi batzuk. Dakitenaz ohartaraztea.
2. saioa Urriak 3	TEORIA ETA PRAKTIKA: hikaren historia, orainaldiko aditzak eta elkarriketa. HAUSNARKETAK nokaren galeraz eta mantentzeaz: 1) Ze emakume ezagutzen dituzue? Zergatik haiek egiten dute noka? 2) Zergatik galdu da hika eta, bereziki, noka?
3. saioa Urriak 17	TEORIA ETA PRAKTIKA: hikako formen erabilera egokiaz.
4. saioa Urriak 31	TEORIA ETA PRAKTIKA: lehenaldiko aditzak eta mintzapraktika kalean (pintxo-potea).
5. saioa Azaroak 14	TEORIA ETA PRAKTIKA: hikako formen erabilera egokiaz.
6. saioa Azaroak 28	TEORIA ETA PRAKTIKA: aditzak eta mintzapraktika gelan.
7. saioa Abenduak 12	PRAKTIKA: mintzapraktika gelan eta kalean. GALDETEGIA: balorazioa egiteko eta hiltunen erabilera-aldea aztertze.

3. taula: noka-saioen eduki nagusiak.

Zein izan dira saioen emaitzak?

Ondorengo puntuetan, noka-saioetatik atera ditugun emaitza nagusiak azalduko dira.

• Ezagutzan eta praktikan sakondu dute parte-hartzaileak

Parte hartu duten kide gehienek ez zuten hika erabiltzen saioetara etorri aurretik. Saioen ondoren, saioetako kideekin hitz egitera pasa dira parte-hartzaileak, gutxienez. Denek esan dute hikaren ezagutza sakondu dutela, eta praktika pertsona gehiagorekin bideratu dutela, askotan taldekideetatik kanpora baita ere: familiako kideekin, lagunekin eta lankideekin hasi dira hika hitz egiten.

• Aldaketa egiteko, norbere ezagutza lantzea beharrezko

Aldaketa egiteko garaian behar izan dutenari buruz galdetuta, askok norbere ezagutza-beharran jarri dute fokua. Aurrena hika badakitela sentitu behar izan dute, erabiltzeko pausoa emateko. Horretaz gain, elkarriketan hankamotz ez gelditzeko, gehiago sakondu behar da. Parte-hartzaile batek esan bezala: “Alde batetik, erraza izandu dun herriko emakume askorekin hitz egiteko ateak ireki dizkidalakoz ikastaroak. Baina oraindik aditz-aukera mugatua daukiala sentitzen dinat eta horrek elkarriketetan gutxi sakontzera edo orainaldian hitz egitera eraman zeanen.

• Aldaketa egiteko, taldeko giroa eta solaskidearen prestutasuna eta konpromisoa beharrezko

Gutxi zekitenen artean, batzuk nabarmentzen dute elkarren artean errazagoa izan dela, “giro ona egon delakoz”. Modu berean, beste parte-hartzaile ho-

nek ere: “Ez dinat sekula hitzein eta aldatzea zaila itten zian. Baina besteak nere antzera ikusitakoan animatzen hasi nun”. Eta solaskidearen inplikazio beharra agertu da: “Aldatzeko ez dun erraza izan. Ni saiatzen nun lagunen arten hikaz, bino beraiek, gehienak mutilak, ez diton jarraitzen elkarriketara osoa (lehenengo esaldik bai)”.

Besteen konpromisoa ere garrantzitsua da oso, beraz. Askok azpimarratu dute bestearen prestutasuna behar dutela: “Aldaketa egin dut beste kideak ere noka edo toka aritzeko prest daudela, nahiz eta batzuetan zaila egiten zaigun”. Hika hitz egin aurretik azalpen bat eman beharra sentitu dute askok, bestela ondokoari arraro egiten baitzaio. Kontuan hartzeko beste elementu garrantzitsua agertu zaigu hemen, beraz: norberarenaz gain, kidearen inplikazioa edo konpromisoa ere beharrezkoa da aldaketa egin ahal izateko.



Egindako hausnarketak: zergatik galdu da hika eta, bereziki, noka?

Taldean gai honen gainean hitz egin da, hainbat arrazoi agertu dira:

• Elizaren aldetik hika desagoki eta itsusitzat jo zen

Parte-hartzaile batzuk elizaren eragina azpimarratu zuten, hika hitz egitea desagokia zela adieraziz. Edonola ere, hika hitz egitea zakarra eta itsusia zela zabaldu zen, baina debeku horrek ez zien berdin eragin gizonezkoei eta emakumezkoei.

• Arauak zorrotzagoak dira emakumeekin, emakumeak dena ongi egin beharra du

Taldean aipatu da emakumeari esijentzia gehiago jartzen zaiola gauzak egiteko garaian; dena ongi egin behar du, baita hitz egin ere. Gizonezkoei errazago onartzen omen zaie edozer: “Nekatua zeok eta...”; edozein aitzakiak balio du gizonezkoak zerbait “gaizki” egiteko. Taldekideen ustea izan da emakumezkoei estuago hartu izan zaiela araua bete beharra.

• Emakumearen feminitatea eta noka talkan: neskak “finak” izateko ezin zitenan hika aritu (gizonak libreago honetarako ere)

Galdera honen gainean hizketan aritu ginen taldean: *hire ustez jendeak ze iritzi du nokaz? Eta tokaz? Iritzia berdina dun?* Erantzunek erakusten dute emakumezkoak noka aritzeko izan dituen traba batzuk:

Askori entzun ditet nokak “itsuski” edo “zakar” sonatzen dula emakumeen ahotan, aldiz, toka gizonezkoen artean normaltasunez hartzen dituen. Nik eztiñat iritzi bera. Ez nuke esango zakartasun kontua denik biño jendeak iritzi hori din.

*Iritzia ez da berdina, nire ustez. Zenbait lagunek (neskak) beraiei hika ez egiteko esan izan didate, neskenan ez zaiela gustatzen, **zakarra** delako. Tokaren galerak nokarenak baino hauts gehiago harrotuko lituzkela uste dut.*

*Toka oso zabaldua dago gazte ta helduetan. Noka egiten duena berriz, askotan **zakar** gisa edota **adinekoren arteko gauza** bezela ikusten dun.*

*Emakumeen artean **zakarragoa** sumatzen dun agian. Gutxiago entzun dugulako edo?*

*Toka normalizatuagoa zeon ta erabilera ez dun jendentzat arrotza. Noka **gutxio aittua** denez **arraroagoa** itten dun. Jenden iritzia **zakarroa** gelditzen dunela dun, ta bortitzoa, gutxio entzun dinaulako, pentsatzen dinat.*

*Denetarik entzun dinat, **zakarra, errespeto falta...***

*Toka gizartean onartua dago, **noka berriz ez da ia entzuten.***

*Noka erabiltzea ez dun hain ohikoa. Iritzia etzekinat berdina ote den baina **hobeto ikusia izan zitekeen toka egitea.***

*Jendek toka erraxago hitzeitten din. **Noka gehio kostatzen** ziun.*

2. taula: nokaren gaineko iritziak.

• Nokarekiko ikuspegia lehen baino baikorragoa da emakumeen artean. Gizonezkoen artean?

Historiaren karga hori hor dugu, eta gaur egunera ere iristen zaizkigu hango oihartzunak. Emakumearekiko esijentzia eta gizonarekikoa ez da berdina bizitzako hainbat arlotan. Hala

ere, nokarekiko ikuspegia aldatuz doala ikusi da ikerketan zehar; bai partehartzaile gazteagoengan hikarekiko estereotipoen pisua arinduz doalako, eta baita, beraien kasuan bederen, nokarekiko duten ikuspegia baikorra delako. Orokorrean, gaur egun ematen du hori dela joera Euskal Herri osoan.

Ikerketa honetatik kanpora gelditu da gizonezkoek nokarekiko gaur egun duten ikuspegia zein den, baina argi dago haien papera ere oso garrantzitsua dela nokaren etorkizunarentzat.

Aurrera jarraitzeko, akuilua behar

Parte-hartzaileek ikasi egin dute eta honaino iristeko arrazoiez hausnartu dute, eta nokaren erabilerarekin aurrera jarraitzeko, zerbait gehiago behar luketela adierazi dute. Erantzun honetan askok esandakoa biltzen da: “Saio hauen bidez erraza izan dun, gure artean sortu baitinagu horretarako espazioa. Hemendik aurrera konpromiso hori mantentzea izango dun benetako lana eta ardura, gure ondorengoek ezagutuko baditen, behintzat”.

Aurrera jarraitzeko zer behar luketen galdetuta, “gehiagotan biltzea”, “taldea”, “euskarriak” aipatu dira. Oñatin egindako *Appa hi!* aplikazioa herriko formetara egokitzea euskarri edo bitarteko egokia litzateke, beste herri batzuetan dagoeneko egin duten bezala, eta baita oinarritzko aditz-taulakin liburuxka bat egitea ere. Dagoeneko aditz-taula oinarritzkoekin egindako “txuleta” ere hor dago, Euskaraldian ere zabalduko dena. Euskaraldiarekin batera hika praktikatzeko deia eta aukera ere izanen dugu 2025eko maiatzean, Goizuetak ere *Euskaraldia Hika*-n izena eman duelako. Horren ondoren, praktikarekin segitzeko zer egingen huke, irakurle?

ERANSKINA:

Goizuetako orainaldiko eta lehenaldiko aditzak, hika

NOR saila

ORAINALDIA

Perts. (NOR)	ZUKA	HIKA
Ni	naiz	nun / nuk
Zu/hi	za	(y)aiz
Hura	da	dun / duk
Gu	ga	gittun / gittuk
Haiek	dia	ttun / ttuk

LEHENALDIA

Perts. (NOR)	ZUKA	HIKA
Ni	nitzen	(ni)ñu(e)nan / (ni)ñu(e)n
Zu/hi	zitzen	(y)itzenan, (y)itzanan / yitzen
Hura	zen	yu(e)nan, yunen / yu(e)n
Gu	ginan	ginozeonan / ginozeon
Haiek	zian	ttuenan / ttuen

NOR-NORK saila

ORAINALDIA

NORK	ZUKA	HIKA	PLURALEAN
Nik (hori)	dut	dinat / dit	ttinat / ttit
Zuk/hik (hori)	zo	dun / duk	ttun / ttuk
Hark (hori)	do	din / dik	ttin / ttik
Guk (hori)	du	dinau / diu	ttinau / ttui
Haiek (hori)	dute	diten / ditek	ttizten / ttiztek

LEHENALDIA

Pertsona	ZUKA	HIKA	PLURALEAN
Nik (hori)	nun	ninan / nin	nitti(e)nan / nitti(e)n
Zuk/hik (hori)	zinun	yunen / yun	ttu(e)nen / ttu(e)n (i)ttuenan / (i)ttuen
Hark (hori)	zun	zinan / zin	zittinan / zittin
Guk (hori)	ginun/gunun	gininan / ginin	ginitti(e)nen / ginitti(e)n
Haiek (hori)	zuten	zitenen / ziteken	zittiztenan / zittizten

NOR-NORI saila

ORAINALDIA

NORK	ZUKA	HIKA	PLURALEAN
Niri	zit	zean, zian / zeak, zia	zkian / zkiak
Zuri/hiri	zizo	zin / zik	zkin / zkik
Harrerri	zio	zin / zek (zik)	zkin / zkik
Guri	ziu	ziun / ziuk	z(i)zkiun / z(i)zkiuk
Hairi	zite	zeten / zetek	zkiten / zkitek

LEHENALDIA

Pertsona	ZUKA	HIKA	PLURALEAN
Niri	zizian	zi(zi)anen / zi(zi)an	zkeanen / zkean
Zuri/hiri	zizo	zi(e)nen / zi(e)n	zki(e)nen / zki(e)n
Harrerri	zio	zeonan / zeon	z(e)keonen / z(e)keon
Guri	ziu	zeziunen / zeziun	z(e)keunen / z(e)keun
Hairi	zite	zitenen / ziten	z(e)keteonen / z(e)keteon

NOR-NORI-NORK saila

ORAINALDIA

NORI	ZUK	HIK
Niri	diazo	dian / diak
Harrerri	dizo	din / dik
Guri	diuzu	diun / diuk
Haieri	dizte	diten / ditek

NORK	ZURI	HIRI
Nik	dizut	dinat / dit
Hark	dizo	din / dik
Guk	dizu	dinau / diu
Haiek	dizute	diten / ditek

LEHENALDIA

NORI	ZUK	HIK
Niri	zinian	yianen / yian
Harrerri	zinin	ionan / ion (y)ienan / (y)ien
Guri	ziniun	yiunen / yiu
Haieri	ziniten	ioteonan / ioten iteonan / iteon

NORK	ZURI	HIRI
Nik	nizun	ninen / ni(e)n
Hark	zizun	zinenen / zi(e)n
Guk	ginizun	gininen / gini(e)n
Haiek	zizuten	zitenen / ziten




12

iruditan


Goizueta iruditan

Goizuetako paisaia zoragarriaz gozatzeko aukera eskaintzen digu Xapoko atal honek. Aurtengoa Portoloko Iban Eskuderoen eskutik heldu zaigu. Haren kameraren fokuan gelditu dira erreka bazterrak, zuhaitz arteko ibilbideak, txondorra, elurra mendietan... baita plaza eta zubi handia ere, baina orain arte ikusi ez ditugun eran. Gozatu!












lubineko pilota plaza berdez pintatua, 2025ean.



Eskolako pilota plaza.



Irisarriko pilota plaza Txino auzoan.



1963, lubineko pilota plaza ezkontza baterako prest.

Ba al dago frontoirik gabeko herririk?

Zer behar du herri batek herri izateko? Lego piezekin osatu behar-ko banu, nola egingo nuke? Ze pieza erabili? Beti pentsatu izan dut zer nolako eragina izan lezakeen eta duen herri bateko egiturak herritarren

arteko harremanetan. Plaza non koka-tu, etxeak nora begira, errekarik ba-duen edo ez...

Joku honek pentsatzera eraman nau ea ba ote dagoen frontoirik ez duen he-rririk. Nik ez dut alerik ezagutzen. Are

gehiago, ez dut irudikatzen halako he-rrietan non elkartzen diren umeak, eu-ria egiten duen urteko 175 egunetan. Non antolatzen dituzten kontzertuak, nola moldatzen diren bertso saioak nahiz bazkari herrikoiak egiteko.



1954, Lubineko pilota plazan.



Aizkolariak Lubineko pilota plazan.



Gaztebixaren 20. urteurreneko kontzertua.



Feri eguneko bazkaria.

Frontoiak osagai klabe gisa sailkatu ditut herri batek behar dituen piezen artean. Izan ere, ukaezina da eraikin hauek herri batean duten funtzio soziala herritarren elkargune gisa.

Gure herrian 3 frontoi ditugu gaur egun. 1912a handikeria eta jauntxoen

urtea izango zen. Titanic itsasoratu zen urte berean eta transatlantikoak baino patu hobearekin, baten prezioan bi pilota-plaza eraiki baitziren Goizuetan, herriko bi familiaren eskaera betez. Hau akaso kontua eta zikina izango da, baina, biak ala biak nahi

omen zituzten pilota partidak etxetik ikusi.

Herriaren beharretara egokitu eta 45 urteren buruan eraberritze aro bat hasi zen beste hainbat frontoitan bezala. Estalia eman zioten Lubineko frontoiari eta gradak eraiki ikusle gehiago

sartu ahal izateko.. Ez zuen trataera bera izan Irisarriko pilota plazak, frontisa eta ezker paretarekin soilik geratu baita gaurdaino. Honen ondorio, pilotakadarik aspaldi ikusi ez eta kotxeen aparkaleku, egur loteen gordeleku, pintaden euskarri eta tabernako bezeroen terraza funtzioa egitea gaur egun.

80ko hamarkada bukaeraz geroztik eskolak ere badu bere frontoia estalpe ta guzi.

Eta hau dena jakinda, ez da kasualitatea, izatekotan kausalitatea, hainbeste pilotari eta izen handi atera izana herri hontatik. Hauei inongo meriturik kendu gabe, ausartuko naiz esatera, pilota eskolak eta herriko eragileak garaian garaiko beharretara zuzen egokitu izanak pisu handia izan duela gure herrian hainbesteko pilota zaletasuna izateko alde batetik, eta bestetik, hainbat ekitaldi antolatzeke aukera sortzeko.

Herritar bolondres hauei esker, ikusi ditugu pilotako modalitate berrietan jokatzeko duten neska nahiz mutilak, urte luzez guztiz maskulinoa izan den mundu batean sartzen..

Telebistarako interesagatik berdez margotutako pareta soilak izateaz gain, hainbat gaztetxoren arratsalde pasako txokoa izan dira, aspaldian egin ez diren barrikote jendetsuen lekuko eta baita dantza, antzerki nahiz kontzertuetarako topaleku ere, bertako tradizioak eta ohiturak zabaldu eta herriko identitatea zabalduz.

Hortaz, Lubineko frontoi berritua inoiz baino biziago dagoela aprobe txatuz, frontoiak plaza gisa mantentzeko lan egiten duten norbanako guztiei hemendik eskerrak eman nahi dizkiet, aurrerantzean ere herria Herri egiten jarrai dezaten.

Alaitz Eskudero Bergarak 2025eko urtarrilean Ttipi-Ttapa aldizkarirako egindako kolaborazioa.



Publikoa Lubineko pilota plazan.



Finalaren ondoren sariak jasota.



Lubineko pilota plaza 1940 aurretik.

HH

PERU HARRIRA BISITA

MARTXOAREN 21ean LEITZAKO PERU HARRIRA JOAN GINEN. HAUR HEZKUNTZATIK HASI ETA LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA ARTE. HAN ARESOKO GURE LAGUN BERRIEKIN EGON GINEN. OSO ONGI PASA GENUEN!! HEMENTXE DITUZUE GURE ARGAZKI BATZUK.



TXOKO DESBERDINAK IKUSI GENITUEN.



ETA GURE HERRIKO ZAHAGIA ERE HANTXE ZEGOEN!!



HARRIA JASOTZEN ERE SAIAKERA POLITAK EGIN GENITUEN!!



DENON ARTEAN, KATAPULTA BILDU ETA HARRIA URRUTIRA BIDALI GENUEN!!



ZAZPI DINOSAURO ZITUEN PARKEAN JOLASTU GENUEN!!



EGUN BIKAINA PASA GENUEN!! ZUEK ERE ANIMATU ETA EGIN BISITA PERU HARRIRA!

LH 1-2



Goizuetako Andres Narbarte "Xalto" eskolako LH1-2 ikastaldeko neska mutilek Aresoko Nazabal eskolako ikasleak bisitatu dituzte, Inguruneako ikasgaian egin duten "Goizueta hegazkinetik ezagutzen" proiektua aurkezteko asmotan.

Proiektu honetan, Goizuetako herriarekin zer ikusia duten alderdi ezberdinen inguruko lanketa egin dute, besteak beste: historia, kokapena, ingurua eta kultura.

Era honetara, Aresoko ikasleek Goizuetaren inguruan gehiago jakiteko aukera izan dute eta bi herrietako ikasleek egun paregabea pasatzeko aukera izan dute.

LH 3

JANARI BILKETA

Andres Narbarte "Xalto" eskolako 3. mailako ikasleak, Gaztelaniako arloan, proiektu bat egin dugu.

Premia berezian dauden pertsonen lagundu nahi genien eta horretarako Paris 365 jantoki sozialarekin harremanetan jarri ginen.

Beraiek janari bilketa bat egitea proposatu ziguten.

Proposamena onartu eta lanean hasi ginen. Bi egunez Txino auzoan eta plazan jarri ginen jendearen borondatea jasotzeko.

Eskolan, aldiz, aste batez jaso genuen janaria.

Jaso dugun laguntza handia izan da eta asko eskertu digute.

ESKERRIK ASKO!

LH 5-6

Txuleta patatekin

Arrautza frijituak, patata eta hirugiarrarekin

Saltxipapak

Entsalada mixta

Pintxo tortilla patata

Brownie

Pizza margarita

Krepak

Pasta entsalada

Patata tortilla

*Patatak Foster
Hollywood erara*

Limoizko moussa

Xapo aldizkariko errezetak

Kaixo irakurleok!

5 eta 6. mailako ikasleak gara eta gure errezetak aurkeztu nahi dizkizuegu. Lan hau bikoteka edo banaka egin dugu.

Lehendabiziko, platera aukeratu genuen. Jarraian, errezeta idatzi genuen koadernoan. Ondoren, ordenagailura pasa genuen Canva aplikazioa erabiliz. Gero, etxean bikoteka edo banaka errezetaren bideoa grabatu genuen. Bideoan, jarraitu beharreko pausoak azaltzen ziren. Azkenik, emaitza gelan ikusi genuen.

Zuekin errezeta horiek partekatu nahi ditugu. Gustokoak izatea espero dugu. Ezkerreko QRan errezetak dituzue ikusgai eta eskuinekoan, bideo batzuk jarri ditugu.

On egin!



LH 5-6

Patioko proposamena

Kaixo guztioi,

5 eta 6. mailako ikasleak gara. Aurten, Inguruneko proiektu bat egin dugu. Gure helburua, patioa inklusiboa eta erakargarria izatea izan da.

Hasieran, ez genekien nola hasi eta proposamenak biltzeko kutxa bat jarri genuen gure eskolako sarreran. 2 aste pasatu ondoren, kutxa gure gelara ekarri genuen. Proposamen asko azaldu ziren eta hauetatik batzuk aukeratuta, taula bat egin genuen. Proposamena hau izan zen:

ASTELEHENA: libre, lehen bezala.

ASTEARTEA: 4 joku ezberdin (3 joku LHrentzat eta 1 HHrentzat). LH5 eta 6koak jolasetan arduradunak izan gara.

ASTEAZKENA: lehenengo 10 minutuak patioko toki ezberdinak garbitu eta beste 20 minutuak libre (materialik gabe).

OSTEGUNA: material gelako materiala erabiltzeko aukera. Lehen 5 minututan hartu eta azken 5 minututan jaso.

OSTIRALA: aste guztian sarreran paper bat jartzen genuen bakoitzak nahi duen kanta apuntatzeko. Ostegunean zerrenda bildu eta ostiraleko errekreoan jartzen genituen. Ostiraletan libre, lehen bezala.




Lau astez proposamen hau aurrera eraman dugu. Denbora hori pasata, balorazio-galdetegi bat pasatu zaie eskolako ikasleei. Azkenik, galdetegi horretako informazioa bilduz, egokitzen txiki batzuk egin dira.



DBH 1-2

GOIZUTAKO KRONIKA

EGURALDIA:



Amets Arzallus: Intsentsibilizatuta gaude? Ala gauzkate?

Gaur 2025-04-02 Andres Narbarte "Xalto" Eskolako DBH 1-2ko ikasleek Amets Arzallus bertsolari eta idazlearekin hitz egin dute.

Mikel: Nola erreakzionatu zenuen istorioa lehen aldiz entzun zenuenean?

Errealitate latza iruditu zitzaidan. Zer baino, nola kontatzen zuen, berriz ere esperientzia latza bizitzea gogorra egiten zitzaion. Min horri zentzua ematen saiatu ginen. Istorioa ez zen egun batekoa bakarrik, 12-15 egun ingurukoa eta goizetik eta arrasalde. Banekien bizitza gogorra zela baina ez nuen uste hain gogorra zenikan. Ibrahim kontatzen hasten zenean nabaritzen zen sufritzen zuela eta liburua idaztea oso gogorra egin zitzaigun biei.

Alize: Aurreikusten zenuen liburuak izan duen arrakasta?

Inola ere ez genuen espero, eta hainbestera joango zenik ezta ere. Gainera, ez genuen pentsatuta liburu bat izango zenik. Hasieran, Ibrahimaren asiloa eskatzeko txosten moduko bat egin genuen. Baina bere helburua ez zen bete, ez zuen arrakastarik izan eta 6 urtez asilorik gabe egon zen egoera zail batean. Liburuak noski arrakasta izan duela baina egitazko helburuak ez zuen arrakastarik izan eta hori da guri gehien inporta zaiguna. Horrela hasi zen dena eta horregatik bukatu zen liburu batean.

Ireber: Intsentsibilizatuta gaudela uste duzu?

Nik uste kezka berezkoa dugula, elkartasuna erakustea humanoa dela baina neurri batean intsentsibilitatera bultzatu egiten gaituzte. Solidaridadea eta empatia bezalako sentimenduak ere izaten ditugu. Beldurrak intsentsibilizatzea eta deshumanizatzea eragin dezake. Migrazioarekiko kanpainak hainbat gauz eragiten dituzte gudan. Gure begirada aldatzea eta guk mina sentitzea beraiek bizitutakoarengatik. Mina hartzen ikastea gogorra da. Intsentsibilizatuta gaude? Ala gauzkate?



Ametsekin elkarrizketa Tekno gelan izan zen.



Izaro: Zergatik erabaki zenuten liburua argitaratzea?

Hasieran ez genuen asmorik argitaratzeko. Ondoren, liburua argitaratzea erabaki genuen. Babes politikoa lortzeko hasi zen txostena, besteek ere errealitate hori ezagutzeko. Migrante gehiagori laguntzen saiatu nintzen, baino eskaerek ez zuten ongi bukatu. Pentsatu nuen Ibrahim babesteko zer egin gure sistematik haratago, eta jendeak ikusteko migranteak nola bizi diren. Ibrahimak diru iturri bat izateko ere izan zen arrazoi bat liburua argitaratzeko. Eta ulertu dezagun kalean edo autobusean migrante bat ikusterakoan motxila txiki batekin, motxila txiki horien barruan zer dakarten. Baina liburua batez ere Ibrahim babesteko eta asiloa lortzeko idatzi genuen.

Jon: Zer sentitu zenuen Aita Santuak liburua gomendatzean?

Hasieran, txiste bat zela uste nuen. Ni ez naiz fededuna, baina Ibrahim oso fededuna da, musulmana eta espiritualtasuna berarentzako oso garrantzitsua da. Lagundu dezakela uste dut eta eskertuta nago. Beste ate batzuk ireki zituen, Euskaraz abiatutako liburu bat Aita Santuraino iristea harrigarria da.



ERREDAKTOREAK: Yera, Eñaut, Mañel, Jon, Izaro, Katixa, Mikel, Ireber, Haritz, Beñat eta Alize. Andres Narbarte "Xalto" Beheko Landa kalea, 00. DBH 1-2ko ikasleak. 31754 Goizueta

Katixa: Zergatik erabaki zenuten ahozketasuna errespetatuz idaztea eta ez modu tradizional batean?

Nahigabe gertatu zen zerbait izan zen. Nik egin nizkion galderak eta berak erantzunak. Berak esan zidanak hizkuntza, literatura, magia, poesia zuen eta gauza ederra iruditu zitzaidan. Ibrahimak bazuen berezko musikalitatea, bere herriko tradizioan errotuta dagoena, pular hizkuntzarena. Ez nuen kazetaritzako kronika bat idatzi nahi.



Ibrahimaren ibilbidea.

Yera: Nola ezagutu zineten Ibrahim eta zu?

Irungo tren geltoki batean ezagutu ginen. Bera burnizko banku batean eserita zegoen motxila txiki batekin. Bi aste pasatu ondoren komisaldegian hitzordua eman zioten eta gure lehen elkarriketa eduki genuen. Plazaren inguruan grabatzen hasi nintzen grabadora txiki bat erabiliz. Ibrahimak bizitutakoaz hitzegiten zuen bitartean, nekez grabatu genuen atzeko soinuarengatik. Ez genuen uste grabazio hori liburu bihurtuko zenik.



Ibrahim Balde eta Amets Arzallus.

Haritz: Pentsatzen al duzu idazten jarraitzea?

Idazten baino bertsotan gehiago ibiltzen naiz, hortik lortzen dudalako bizitza. Idaztea gustatzen zait baina ez naiz goiz batean jaikitzen liburu bat idazteko helburuarekin. Sartzen bazait liburu bat idazteko asmoa edo gogoia, egingo nuke, baina konbentzimendu bat behar da, sinismena. Beste ariketa mota bat da.

Mañel: Nola gaintitzen da "errua" edo "kulpa" sentimentua?

Ba hori oso galdera sakona da neuk erantzuteko. Ibrahimak ulertarazi zidan korapilatuta bizi zela gai horregatik. Denborak kulpa baretzen du. Gaintitu ez dakit, kostatzen zaio hitz egitea, nik ez diot galdetzen, hori profesionalekin hitz egin behar da. Sentimentu hori orbainduz doa...

Eñaut: Bueltatu al da Ibrahim Afrikara?

Hasieran asiloa ukatu zitzaion eta horregatik 'ezin zara atera' esan zioten. Hamar urte pasa ondoren, Afrikara bueltatzea lortu zuen. Kasualitatez, Afrikara duela hiru aste joan zen, berriz. Bera musulmana denez eta Ramadama bukatu dutela ospatuz festa handi bat egiten dute familiarekin.


Beñat: Joan al zara afrikara?

Duela urte bat ezetz esango nizun, ez nuelako aukerarik eduki.

Iazko Ekainean eduki nuen aukera joateko Ibrahimarekin Keniara literaturako festa batera, munduko beste persona batzuk baita ere. 3-4 egun egon ginen.

Nola iruditu zizun hango bizitza? Hango bizitzan

kontraste izugarria dago; dena kaos bat da: jende xumea, dirudunak, enpresak, etengabeko azoka... oso desberdina.



Juan Perurena



Andres Narbarte 'Xalto'

Bi goizuetar 1960ko Euskal Herriko Txapelketako finalean

Donostiako Victoria Eugenia antzoki ederrean jokatu zen 1960ko abenduaren 18an Euskal Herriko bertso txapelketaren finala. 8 bertsolarik kantatu zuten goizetik eta horien artean bi goizuetar zeuden, Txemene baserriko Andres Narbarte "Xalto" (1927) eta Aiarra Juan Perurena (1930).

1979-80ko txapelketa nagusira arte (bertsolaritzaren aro berriaren hasiera?) salbuespenak salbuespen, probintzi edo herrialde bakoitzeko bi bertsolari hoberenak hartzen zuten parte. Nafarroakoak aukeratzeko Lekunberrin eta Elizondon burutu ziren bi kanporaketa,

eta han sailkatutakoekin Lesakan ospatu zen finala. Bertan Xalto suertatu zen irabazle eta Perurena bigarren izan zen. Beraz, biek lortu zuten Donostian kantatzeko eskubidea.

Bi goizuetarraz gain, Uztapide eta Mitxelena gipuzkoarrak, Azpillaga eta Mugartegi bizkaitarrak eta Iparraldeko Xalbadorrek eta Mattinek kantatu zuten Victoria Eugenia goizeko saioan. Hauetatik Uztapide, Xalbador eta Azpillaga igaro ziren arratsaldekoa. Hirukote honek eta Basarrik (aurreko txapelduna) kantatu zuten arratsaldean. Uztapide eta Basarriren arteko buruz-buruko izugarriaren ondoren,

lehengo buruan gelditu zen 1960ko txapela ere, Iñaki Eizmendi, *Basarrik* irabazi zuen, alegia.

Agurrak gehi zazpina bertso kantatu zituzten bi goizuetarrek finalean, goizetik ere aurrekanporaketaren antzeko bat egiten baitzen orduan, hasierako zortzikotetik lau berehala kanpoan utziz. Horien artean zeuden gure herri-tarrak. Egia esan, orduko bertsoak irakurritz alde dezentea zegoen bertsolari batzuen eta besteen artean.

Perurenari Uztapiderekin kantatzea egokitu zitzaion eta Narbarteri berriz, Mugartegirekin. Aipatutako 7 bertsoak lagun berarekin beraz. Esan dugun be-

zala, alde dezentea zegoen bertsolari batzuen eta besteen artean, baina hala ere, gure bi herritarrak kantatutako aleak badira orri hauetan agertzea merezi dutenak.

Perurena eta Uztapideren arteko lehian gai librean bina bertso bota behar zituzten hasteko, eta gogor ekin zion Aiarrakoak gipuzkoarrari:

Perurena

Eskubidiak badira bañan
bakoitza bere legian;
esan bihar det etorkizunak
nola gertatuko dian;
nere prueba aitortu nai det
eta ain odol bizian,
gaur etorri naiz gipuzkoar au
probatutzeko idian.

Askoz lasaiagoa izan zen Aiarrakoak jasotako erantzuna:


Uztapide

Zu, Perurena, probatutzero
Iñork etzaitu beartu;
lagun jator bat emen dezula
sinista zazu ziartu.
Nik´e urtiak juanak ditut,
gehiago ezin indartu.
Onez aurrera ez al det obe
gaziakin elkar artu?

Bigarrenngoan buelta eman zion Juanitok, eta potoak poto, bertso polita bota zion.

Perurena

Memoriz oso alegre zaude
eta ederra euskera.
Denak oneri jarraituz piskat
alimatuko ez al gera?
Lendabizitik sartu zait niri
odol gaxtuan kolera;
ez apuratu, adiskidia,
aisa moldatuko gera.



1960ko Bertso Txapelketako kartela.

Narbarte eta Mugartegiren arteko gai libreko lanean bi bertso hauek kantatu zituen Txemeneko semeak:

Narbarte

Pentsatutzen det emen geienak
geradela euskaldunak.
Esate bateko nola baigeran
auzo bateko lagunak,
biotzez gera batek bestia
ondo maitatzen degunak;
gaur, jaunak, ez du gutxi baliyo
olako anaitasunak

Narbarte

Ni Donostian oso gutxitan
izana naiz oraindikan:
biotz barrendik gaur´e ez daukat
etortako damurikan.
Neure denboran eztet ikusi
onelako lorerikan;
gaur mundu ontan ez da izango
leku ederragorikan.

Ondoren, Mugartegi medikuaren paperean jarri zuen Irigoien gai jarzaileak, eta Xalto, berriz, kuranderoa zen. Aurreneko bertsoa hauxe bota zuen gure herrikoak “medikuarri” erantzunez:

Narbarte

Lagun on onek egi polit bat
aldamenetik esan du;
eta aitormena emateko´re
nola ez beita berandu;
gaurko egunen eri sendatzen
gizon batek lana badu;
eta neri´re pasatutzen zait
egin nai eta gallendu

Bigarrenngoan jo zuen goia Narbarte, finaleko bertso gogoangarrietako bat kantatuz:

Narbarte

Neure esana entzun ta, maitea,
etzaitzeltela arritu;
mediku onek eundalako
istrumentuak baditu;
jakinduriaz listoa da ta
ala´re ezin ornitu;
berak ezin sendatu ditunak
nigana bialtzen ditu.

1965eko txapelketako finalari emanen diogu gainbegirada hurrengo Xapon, orduan ere utzi baitzuen arrastoa Andres Narbarte “Xaltok”.

Goizuetako irakurle taldea



Miren Agur Meabe idazle lekeitiarraren "Itzulerak" liburuarekin.

Irakurketa bakarkako plazertzat jo izan dugu maiz, baina bada harago jo eta plazer kolektibo bilakatzen duenik ere, eta horixe da irakurketa taldean egiten duguna: nor bere irakurketatik abiatuta, irakurketaren plazera beste pertsona batzuekin partekatzea. Gainera, irakurketa lantzea, geure buruarentzat ez ezik, geure herrirentzat ere onuragarria da; zainketa da.

Goizuetan, irakurle taldea sortu aurretik, bazegoen liburuak Whatsappez

komentatzen eta elkarri gomendatzen zion taldetxo bat; hazia ereinda zegoen.

2020an, LAGA Liburutegi Ibiltaria martxan jarri zenean, Goizuetan euskarazko irakurle talde bat sortzeko aukera egingarria zela ohartu ginen, eta landareak lur gozotan nola, pixkanaka ideia garatzen joan zen. Ohartzetik, ideia loratu egin zen, eta proiektua forma hartzen hasi zen: hainbat herritarrek irakurle taldea osatzeko

ardura hartu zuten, eta, behin taldetxo bat osatuta, 2024ko abenduan lehenengo bilera-deia egin genuen.

Bilera hartan nola funtzionatuko genuen erabaki zen: irakurle taldearen saioak bi hilez behin egitea adostu genuen, Tifanitxon, 18:30ean. Irakurle taldearen saioetan parte hartzea libre da, eta baita iritzia ematea eta gainontzeko partaideen iritzia errespetatzea ere. Liburuak aukeratzeko, Nafarroako Liburutegi Publikoen Sareko liburu-sortak baliatzen ditugu, aukera handia dago, eta liburuak Goizuetan bertan hartu eta itzuli daitezke.

Eta hartu beharreko erabakiak hartuta, lehenengo saioa 2025eko ilbeltzaren 30ean egin genuen, Tifanitxon, eta horretarako hautatutako liburua Uxue Alberdiren 'Jenisjoplin' eleberria izan zen. Izan genuen zer komentatu gure artean; izan ere, istorio bera irakurri bagenuen ere, ez genuen berdina esateko, eta ederki zukutu genuen liburua.

Bigarren liburua aukeratzeko orduan, Leitza, Areso, Goizuetan eta Arano Euskara Zerbitzuak laguntza handia eskaini zigun. "Literatura Geraldidiak" ekimenari esker, Goizuetan idazle batekin topaketa antolatzeko aukera eman ziguten, eta, horrela, Miren Agur Meabe idazle lekeitiarraren "Itzulerak" liburua irakurtzeaz gain, Miren Agur Meabekin berarekin solasaldia egiteko parada izan genuen. Martxoaren 26an izan zen irakurle taldearen bigarren saioa, eta Miren Agur Meabek zintzoki erantzun zien gure galdera guztiei, eta erakutsi zigun idazten bezain abila dela hitz egiten.

Irakurle taldearen ikasturte bukarako liburua eta data ere erabakita ditugu: ekainaren 4an izango da, eta ordurako irakurri beharreko liburua Maddi Ane Txoperenaren 'Ez erran inori' izango da. Seguru liburu honek ere zer komentatu handia izango duela!

Uda eta gero, irakurle taldearen saio berriari ekingo diogu, eta ziur gara irakurketa on asko izango ditugula elkarrekin komentatzeko. Beraz, irakurtzea gustuko baduzue, animatu eta parte hartu Goizuetako Irakurle Taldean!



atzera begira

2004. urtea

Esteban Arotzenak Ttipi-Ttapan argitaratutako berriek eskainiko digute 2004. urtean gure herrian gertatutakoari gainbegirada emateko aukera paregabea.

Zorionez gaur egun ere maiz gertatzen den bezala, aldizkariaren urteko aurreneko alearen berri nagusia herriko pilotarien garaipenei buruzkoa zen. Julen Arozena, Ekaitz Narbarte, Mikel Eskudero eta abarren zapelak ziren aipagai, baina guztien gainetik, Jon Apezetxeak egindakoa zen garrantzitsuena, hiru torneo irabazi baitzituen abenduko azkeneko bi asteburuetan.

EHNA (euskal karneta) tramitatze-ko aukeraren deialdia, Gaztetxeko en herri inkesta eta zakurrak kaleetan solte ibiltzearen debekuaren berri ematen zuen Udal Bandoak osatu zuten ilbeltzako berrien zerrenda.

Otsailean zaborren birziklapenari buruzko urrats handiak eman ziren herrian; Herriko Etxean aurreko urtean burututako obrei zegoen subentzioa jaso zuen Udalak (115.000 €); eta festa giroari dagokionez, karnabal "gero eta hobeak" ospatu ziren: 50 neska-mutilen mozorro taldea, Igandea Txaranga, Traketsen berberena, antzerki emanaldiak, pilota partidak, eta abarrek osatu zuten 4 eguneko egitaraua.

Aipatu baita ere, 2003ko urrian irekitako Zaharren Egoitzak 142 bazkide bazituela 2004ko otsailerako. Anttoniko Apezetxea zen komisioko burua.

Martxoan, herrian etxebizitzaren beharrei buruzko inkesta egin zen. 74 gaztek erantzun zuten, eta hauetatik 63k Goizuetan pisua erosi nahia agertu zuten bertan bizitzeko. Garai hartan, ordea, ez omen zegoen etxe bakar bat ere salgai.

Martxoren 27an Txino auzoko festen lehen edizioa antolatu zen (200 laguneko herri bazkaria, kontzertuak, parranda giro latza...).

Apirilean berriz, Nerea Zabaletak Nafarroako Haur Kantari Txapelketaren 1. Saria irabazi zuen Gayarre antzokian.



Nerea Zabaleta.



Maialen eta Bianditz.

Gainera, eskolako DBH-ko ikasleek herriko maketa ikusgarria eraiki zuten. Bi ikasturtez egindako lan hau Udalarari oparitu zioten "herriar guziek ikus zezaten".

Maiatza zen Bai Euskarari akordioa aurkeztu zenean herrian. Ainara Narbarte zen Goizueta eta Aranoako teknikaria. Xapo aldizkariaren 3. alea ere egun horietan kaleratu zen. Aipatzekoa da baita ere, Nafarroako Gobernuak (UPN), beste hainbat Udalekin batera, Goizuetakoa salatu zuela auzitegiaren aurrean Herriko Etxeko balkoitik ikurriña ez kentzeagatik.

Ekaina hasieran Maialen Uitzik Nafarroako Eskolarteko Bertso Txapelketa irabazi zuen. Bianditz Narbartek ere finalean kantatu zuen.

Uztailean ere, jakina, zapelak sartu ziren herrian. 16 urteko Jon Narbarte eta Jon Apezetxeak jokatu zuten orduan izen handia zuen Elgetako Txapelketako finala. Narbartek irabazi zuen partida hori, aurreko urtean Apezetxeak egin zuen bezala.



Jon Narbarte eta Jon Apezetxea.

2004. urteko Amabirjinen programan 9 eguneko festak iragarri ziren, baita jendetzaz eta giro ederrean ospatu ere, iraileko Ttipi-Ttapan lehen alean azpimarratu zuenez Esteban Arotzenak

Urriaren 2an aurkeztu zien Udalak herritarrei komunal edo herri lurren hitzarmenaren akordioa izan zitekeenaren zirriborroa; Udalak jakinarazi zuen gainera, heldu zen neguan 50 hektarea landatuko zituela hainbat landare motekin, baina insignis pinuaren alerik ere ez. Gure mendietako azken urteetako "erregearen" bukaeraren hasiera omen zen hori.

Azaro kulturalak ekitaldiz bete zuen hilabete hau, eta horien artean garrantzitsuena Feria Egun berriaren lehen edizioa izan zen. Antolatzaileak erabat ustekabea harrapatu omen zituen lortutako arrakastak. Azaroan gainera, Pello Apezetxea Ohorezko Euskaltzain izendatu zuen Euskaltzaindiak.

Abenduan, besteak beste, Umore Ona elkartearen 20. urteurreneko festa ospatu zen. Baita, orduan Parisen preso zegoen Iñigo Elizegiren aldeko barrikote jendetsua ere.



ZURE TXANDA

NEKANE ELIZALDE EUSKAL DANTZA IRAKASLEA



1- Noiz eta nola hasi zara Euskal dantzak erakusten?

Aurten hasi naiz eta herritarrek animatu naute. Herrian somatzen nuen jendeak euskal dantzak ikasteko gogoia zuela eta aurten Umore Ona dantza taldearen ardura hartzearekin batera, erakusten ere hasi naiz; 9 lagun animatu dira eta "helduen" taldea sortu dugu.

2- Baina lehenik dantzaria izan zinen, ez?

Bai, 10 urte inguru nituela hasi nintzen eta 25 ingururekin utzi. Ez naiz ongi oroitzen baina hasi nintzenean, uste dut baginela 6 talde; 3 neskenak eta mutilenak beste 3. Azken urteetan 3 talde izan dira denera.

3- Nola izan da aldaketa hori?

Orduan baino ume gutxiago dago herrian eta horrek eragin zuzena du. Orain 8ko taldeak osatzea zaila da; dantzari haundiagoek dantza konplexuagoak ikasi nahi dituzte baina txikientzat zailak dira. Beraz, 8ko taldeak osatu beharrean, adinaren arabera antolatzen ditugu taldeak.

4- Nola oroitzen dituzu dantzari izan zinekeko urte haiek?

Oso oroitzapen ona dut. Gaztetan oso lagun onak egin nituen. Txikitan berriz, beste herrietara joaten ginen bertako "dantzari txiki" egunera; autobusez joan, dantzatu, bazkaldu,... oso ongi pasatzen genuen! Aurten aspaldiko partez Añorgara joan gara eta oso ongi pasatu dute!

5- Mutilak animatzen al dira euskal dantzak ikastera?

Ba azken urteetan ez asko! Aurten esaterako, den-denak neskak dira! Txikitan animatzen dira mutil batzuk baina urte pare batera utzi egiten dute. Gaztetxoan artean berriz, aspaldi ez dut herrian mutilik ikusi euskal dantzetan.

6- Helduen taldeari erakusten hasi zarela esan duzu. Zer moduz moldatzen zarete?

Oso ongi! Dantza batzuk ikasten ari dira eta gustura daudela esaten dute! Gainera nik esandako guztia egiten dute txintxo-txintxo! Kar kar kar!

7- Alderik bai al dago, zu dantzaria zineneko eta oraingo dantzarien artean?

Guk euskal dantza tradizionalak ikasten genituen. Orain berriz, zuzenean koreografiak ikasi nahi dituzte. Kosta egiten zaie ulertzea koreografiaren oinarrian, euskal dantza tradizionalak daudela eta lehenbizi horiek ikasi behar direla, ondoren koreografiara iristeko.

8- Gaur egun nola ikusten duzu, Euskal dantzen egoera gure herrian?

Esan bezala, ume gutxi daude eta taldeak ezin dira osatu. Neskak bakarrik daude eta tradizioz mutilen dantzak direnak ere dantzatzeko dituzte, bestela herrian ez genituzke dantza horiek ikusiko. Dantzari kopuruari begira, gutxi dira.

9- Zeozer egin al daiteke, gaztetxoak eta mutilak batez ere, animatzeko euskal dantzak ikastera?

Momentuz ez dut galdera honentzat erantzunik. Ni ere pentsatzen ari naiz eta ez zait deus bururatzen! Norbaitek euskal dantzak ikasteko interesa izanez gero, jarri nerekin kontaktuan!

XOLE ETXEGIA EUSKAL DANTZA IRAKASLE OHIA



1- Noiz eta nola hasi zinen, euskal dantzak erakusten?

Gutxi gora behera 1985 izango zen, ez nago oso seguru.

2- Baina lehenik dantzaria izan zinen, ez?

Bai, 13-14 urterekin dantza taldean sartu nintzan. On Bixentek erakusten zigun neskari, ta mutilari berriz, Bittor Iribarren. 16 neska eta 16 mutil ibiltzen ginan.

3- Nola izan zen aldaketa hori?

Baa... urte batzuk dantzan ibili ta gero, irakasle gabe gelditu ginen, ta Luis Fer Etxeberria mugitu zen, musika eta dantza munduan ibiltzen ginenengana; Bildu ta erabaki ginun herriko gaztetxoek deialdia egitera. Mutilekin, buru, Patxi Iribarren eta Jexux M^a Etxegia, eta neskekin Rosa Olaizola eta ni. Eta txistularia berriz, Axier Mendizabal. Aipatu, baita ere, gu erakusten hasi berri hartan, Alduntzin Umore-Ona Elkarteko lendakaria zela eta asko lagundu zigula bai ekonomiko-ki, (dantza tresnak erosteko edo irteerak egiteko) baita beste beharretan ere... hortxe laguntzen zigun!!

4- Nola oroitzen dituzu dantza irakasle izan zineneko urte haiek?

Nik arrunt oroitzapen onak ditut!! Gure artean krixton giroa genuen. Herriko festatan eta emanaldiak egiteko prest zauden, irteerak ere egiten genituen, arrunt ongi pasatzen genuen!

5- Mutilak animatzen al ziren euskal dantzak ikastera?

Bai. Guk, ez gunun arazorik izan mutilak animatzeko! Egia da orduan, ez zela orain bezela herrikan kanpora joaten kirolak edo beste ekintzak egitera, eta zauden mutilak herriko ekintza guzietara apuntzatzen ziren.

6- Nondik ibili zarete dantzan?

Baa... Euskal Herriko hainbat lekutan: Errenterin, Irungo Euskal jaietan, Kilometroetako jaietan, Nafarroa Oinez askotan. Eta kanpoan ere bai: Bartzelonan, Reusen, Mataron eta oroitzen ez nitzan batzuk ere izango dira! Kar, kar, kar

7- Alderik bai al zegoen lehenko dantzarien eta erakutsi zenien dantzarien artean?

Nik egia esan, ez nuen halako desberdintasunik nabaritu, pixkot lotsagabexegoak zirela, bakarra! kar, kar, kar

8- Gaur egun, nola ikusten duzu euskal dantzen egoera, gure herrian?

Beste arlo askotan bezela, nahiko gaizki! Gaur egungo haurrek eta gaztetxoek ez dute herriko kulturarenganako gogorik, eta esfortzuren bat egiteko gogorik ere ez, ez bada zerbaiten truke. Eta gero eta haur gutxiago daudenez zaila da herri tiki batean hori mantetzera.

9- Zeozer egin al daiteke gaztetxoak, eta batez ere mutilak, animatzeko euskal dantzak ikastera?

Momentu honetan gauza gutxi! Etxetik eta eskolatik, animatu! Gurasoak ere animatu beren haurrei ttikitatit musikara eta dantzara bultzatzera, kirolera bezela... eta beste deus-gutxi!!